

54 ZENBAKIA. 2023

ELKARRIZKETA | **Aitor Bediaga**. Bilbao AS Fabrikeko koordinatzailea

“Bilbao AS Fabrik sinergiak eta aukera berriak bultzatu nahi dituen ekosistema propioa da”



Zenbakia
BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO



**Egin
jauzia!**

UNIBERTSITATE MASTERRAK



***Izen-ematea
zabalik!***



Berrikuntza ekosistema berezi bat

Idea batetik abiatutako proiektua errealitatea da jada. Bilbao AS Fabrik, Bilboko Zorrotzaurre uhartean kokatzen den Berrikuntza Ekosistema martxan dago jada. Eraikinak eskaintzen dituen aukerez eta bertan aurrera eraman nahi diren proiektuez hitz egin dugu Aitor Bediaga bertako koordinatzailearekin.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Gogoratzeko moduko ikasturtea

2022-2023 ikasturtea amaitu da. Mondragon Unibertsitatearen sorreraren 25. Urteurreneko ikasturtea. Iraila eta ekaina bitartean hainbat ekitaldi egin dira merezi duen efemeridea ospatzeko: Ekitaldi ezberdinen artean, unerik hunkigarriena otsailaren 24an Donostiako Kursoalean egindako ekitaldi instituzionala izan zen.

Dantza-zaporea

Basque Culinary Centerreko ikasle talde batek Lucia Lacarra dantzarian oinarritutako postre bat garatu du. Dantzari zumaiarra prozesuaren parte aktibo izan da eta dantzak eta sukaldaritzak elkarbanatzen dituzten baloreak nabarmendu ditu.



BERRIKUNTZA ETORKIZUNERAKO IBILGAILU

Mondragon Unibertsitateak bere 25. urteurrena ospatu du 22-23 ikasturtean. Iragina aitortuz egin du, baina, batez ere, etorkizunari begira, zirrara garria den eta erronkaz bete dagoen etorkizunera. Eta etorkizunari aurre egiteko, unibertsitateak berrikuntzaren aldeko apustua egin du, geroz eta apustu nabarmenagoa da. Berrikuntza Ekosistemetan garbi ikus dezakegu, eta horren adibide garbia da Bilbao As Fabrik, espazio berean unibertsitateko hiru fakultate izateaz gain, ekintzailetza-proiektuak eta beste jarduerak berritzaile batzuk batzen dituen eraikina. Baina adibide zehatz horretatik haratago, Berrikuntza Ekosistemak Mondragon Unibertsitateko fakultate guzti-guztietara hedatzen dira.

Mondragon Unibertsitatean barrurantz eta kanporantz begira berritzen da.

Adibide horietako bat Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Eskoriatzan 2020ko irailan inauguratu zuen Dorleta eraikina da. Eraikinaren diseinua fakultate osorako hezkuntza-proiektu zehatz batean oinarritzen da, eta eraikinaren eta haren espazioaren diseinuak prozesuan zehar definitutako ideiak garatu ahal izateko baldintzak

betetzen dituela bermatzen du. Ildo horretan, Enpresagintza Fakultateak duela urte batzuk abian jarri zuen MTA, proiektu ekintzailetan parte hartzen duten pertsonak edo erakundeak biltzen dituen talde ekintzaileen komunitatea. Berrikuntza da MTAn gauzatzen diren proiektuen ardatz nagusia, eta, gaur egun, hainbat ekimen ditu abian, komunitateak sektorean eragiten jarraituko duela bermatzeko.

Mondragon Unibertsitatean barrurantz eta kanporantz begira berritzen da. Hori dela eta, gaur egun Goi Eskola Politeknikoak berritzeko hiru modu ezberdin bilatzen dituen hiru ekosistema independente ditu. Gaur egun martxan dituen ekosistemak artean MONDRAGON ZTIM Hub, Nagusi Intelligence Center edo HIREKIN daude. Berezko ezaugarriak dituzten berrikuntza-ekosistemak dira, hainbat publikori zuzendutakoak, baina gizartean eragitea dute helburu, ingeniariaren eta zientziaren sektorea garatuz.

Eta azkenik, nola ahaztu Euskal Herria munduko abangoardia den sektore bat, gastronomia. Basque Culinary Center Gastronomia Zientzien Fakultatea guztiz sortzaile eta berritzaile gisa sortu zen, eta orain Donostiako erdigunera zabalduko da GOe (Gastronomy Open Ecosystem) proiektuarekin, Gros auzoan kokatutako gune berri batekin.

Orain arte egindako ibilbidez gain, Mondragon Unibertsitateak etorkizunera begira eragiten jarraitzeko asmo garbia du, eta berrikuntza da horretarako ibilgailu nagusia.



Zetak taldearen kontzetuaz gozatu ahal izan zen urriko jaialdian.

Ikasturte berezi bat bukatu da

2022-2023 IKASTURTEAN ZEHAR BERE SORKUNTZAREN 25. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDI EZBERDINAK ANTOLATU DITU MONDRAGON UNIBERTSITATEAK.

Mondragon Unibertsitatea | Ezohiko giroan hasi zen irailean ikasturtea Mondragon Unibertsitatean, erakundea eratu zenetik 25. ikasturtea, alegia. Ospatzea merezi izan duen ikasturte bat izan da aurtengo hau, eta hasieratik ospakizunetan murgildu zen unibertsitateko komunitatea, urriaren 14an Iturrieko campusean Mugi Panderoa, Skakeitan eta Zetak musika taldeen eskutik bizitako kontzertu festa ederretik abiatuta. Efemeridea nabaria izan da erakundearen egunerokoan, besteak beste urteurrenerako sortutako logo berriaren edo campusek izan duten apainketan. Horrez gain, urteurren honek kanpoaldean ere oihartzuna izan du, Bilbon Arizmendiarraren eskultura berri bat kokatuz edo urteurrenako logo berria ONCEko kupoian txertatuz. Gainera, martxan jarritako ekimen ezberdinen ondorioz unibertsitateak hedabideetan izandako presentzia nabarmen areagotu da.

Ospakizun ekitaldi nagusia

25. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusia antolatu zen otsailaren 24an Donostian Kursalean. Bertan Unibertsitateko kideak biltzeaz gain, eragile, politikari edo lagun ezberdinak elkartu ziren. Garazi Ayesta kazetari eta ikasle ohia izan zen saioa gidatzearen arduraduna, eta Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi umoregileek beraien ukitu informala erantsi zioten ekitaldiari. Une hunkigarri ezberdinak bizi izan ziren bertan, bereziki unibertsitatearen historian errektore izandako pertsona guztien testigantzak jasotzen zituen bideo bat emititzerakoan.

“Gizarteari ekarpenak egiten jarraitu”



Unibertsitatearen 25. urteurrena dela eta, Goiena aldizkariak urtarrilean elkarrizketatu zuen Vicente Atxa errektorea. Bertan, 25 urte hauen errepaso egiteaz gain ikasturtean zehar antolatutakoak aztertu zituen, eta Unibertsitatearen etorkizunerako ibilbidea irudikatu zuen: “Hezkuntza ereduaren digitalizazioaren erronkari erantzunez eraldatzen jarraitu, edo globaltasunari sustraieratik erantzuten jakin behar dugu, baina gure erronka nagusia eragin sozioekonomikoa handitzea da”.

Ekonomia sozial eta solidarioaren UNESCO katedra

UNESCO KATEDRA HAU DA MUNDUAN DAGOEN LEHENENGO KATEDRA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN INGURUAN. AURKEZPENA KOLONBIAKO SANTA MARTAN EGIN DA ETA EKITALDIAN PARTE HARTU DU VICENTE ATXA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAK.



Eskoriatzako campusean egindako UNESCO katedra sortzeko antolaketa bilera.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Ekonomia sozial eta solidarioaren inguruko munduko lehen katedra aurkeztu dugu Kolonbiako Santa Marta hirian. UNITWIN programaren bitartez, UNESCOk, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak, babesten du katedra hau. UNESCO katedraren helburua da prestakuntza, ikerketa eta unibertsitate-trukea bultzatzea, informazioa partekatzea eta ekonomia sozial eta solidarioarekin lotutako diziplinarietako proiektuetan eragitea.

Online egindako aurkezpen ekitaldiaren hasieran, parte hartu dute UNESCOko ordezkariak eta proiektuan esku hartzen duten lau unibertsitateetako errektoreek, tartean Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak.

Ekonomia sozial eta solidarioaren UNESCO katedra hau da munduan dagoen lehenengo katedra ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan. Universidad Cooperativa de Colombia buru dela, honako unibertsitate hauek osatzen dute katedra: Universidad Cooperativa de Colombia, Universidad

de Quilmes (Argentina), Universidad Iberoamericana de Puebla (Mexiko), Universidad Complutense (Madril) eta Mondragon Unibertsitatea.

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko gidaritzapean parte hartuko du Mondragon Unibertsitateak Ekonomia sozial eta solidarioaren UNESCO katedran. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskoriatzako campusean lekututa dagoen ikertegia erreferentea da euskal kooperatibismoaren azterketan eta sustapenean.

UNESCOKO UNITWIN programa

UNESCO da Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea. Hezkuntzaren, zientziaren eta kulturaren arloko nazioarteko lankidetzaren bidez bakea ezartzea helburu duen erakundea da. UNESCOren programak lagundu egiten dute Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako 2030 Programan zehaztutako garapen iraunkorreko helburuak lortzen.

Industria Diseinuko ikasleak sarituak izan dira ontzi eta Enbalajeen Sari Nazionaletan

DISEINU INDUSTRIALEKO 3.MAILAKO IKASLEEK HIRU AKZESIT ETA PUBLIKOAREN SARI BEREZIA LORTU ZITUZTEN



Diseinu industrialeko ikasleek sariak jaso dituzte.

Goi Eskola Politeknikoa Ontzien eta enbalajeen sektorean berrikuntza, diseinua eta jasangarritasuna sustatzea helburu duen lehiaketaren XIV. edizioako sariak Valentzian banatu dira, eta 200 ikasle eta profesional baino gehiago egon dira han.

Sari hauek Ontzi eta Enbalajeen Berrikuntza Klusterraren ekimena dira, eta diseinu ikasleen eta sektoreko enpresen arteko konexio puntu bat ezarri nahi dute. Aurtengo edizioan 25 zentrotako 636 ikasle hartu dute parte, eta Mondragon Unibertsitateko Diseinu Industrialeko Ingeniaritzako Gradu ikasleek sari bat baino gehiago lortu dituzte.

Proiektu berritzaileak

Mondragon Unibertsitateak bi accesit lortu ditu Hinojosa enpresaren erronkan, non ikasleek paperezko edo kartoizko ontziak eta ahalik eta elementu gutxien erabiliz take-awayrako ontziak birdiseinatu behar zituzten.

Lehen accesita Enara Lopezek, Uxue Olariagak eta Maiana Alzugurennek diseinatutako "Petite" ontzirako izan da. Produktua kontsumitu ahala murrizten den enbalaje batean oinarritzen den proiektua da.

Bigarren accesita Haizea Azua Zarragarentzat, Haizea Aranbarrentzat eta Maite Txakartegirentzat izan da, "Con la comida no ¡jugamos?" izeneko ideiatatik. Proposamen berritzaile hori janari lasterrerrako ontzi bat da, eta ontziak "nor da nor" jolasa du barruan.

Mondragon Unibertsitateak eskuratutako hirugarren accesita, berriz, "Magma" proiektuari esker izan da. Proiektua Natale Armendarizek, Maider Armentiak, Oier Bengoetxeak eta Itziar Sanchezek egin dute, ITC Packagingek jarritako erronkari erantzuteko. Enpresa horrek elikagaietarako ontzi berrerabilgarri bat sortzea proposatu die ikasleei.

Edizio honen berrikuntza gisa, sari berezi bat eman da, bertaratutakoek aukeraturata, eta sari berezi hori ere Mondragon Unibertsitateko diseinu industrialeko ikasleek irabazi dute "Magma" proiektuagatik.

'Enpresa Sortuz' lehiaketan 2023ko ideia teknologiko berritzaileak aukeratu dira

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK ANTOLATZEN DUEN LEHIAKETAK EKINTZAILTZA ETA TALENTUAREKIN LOTUTAKO PROIEKTU EZBERDINAK SARITU DITU.



Ekintzailtza teknologikoa saritu da ekimenean.

Goi Eskola Politeknikoa | Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan antolatu da Enpresa Sortuz lehiaketaren sari banaketa. Lehiaketa honen helburua ideia interesgarri bat duten Goi Eskola Politeknikoko ikasle, ikasle ohi edo ikertzaileei ideia hau errealitatera hurbiltzeko baliabideak eskaintzea edo start-up zein negozio ideia batean

txertatu nahi diren ingeniariari zuzendua dago. **Engipreneurship kategorian** zentratuz, Diseinu Inklusiboa eta Satop proiektuak saritu dira. Lehena Amaia Beitia eta Arantxa González de Herediak ikerlari eta irakasleek garatu dute, eta produktu eta zerbitzu inklusiboagoen inguruko plataforma eta aholkularitzan zen-

tratzten da. Bestalde, SATOP Aritz Esnaola irakasle-ikerlariak sortu du, eta kirol-oinetako enpresa zolak ekoiztearen inguruko negozio-eredu bat proposatzen du, 3D inprimaketaren onurak aprobetxatuz. Kategorian honen saria Mondragon Unibertsitateko ingeniarietako ikasle bat 23/24 ikasturtean zehar proiektuan sartzeko beka da, eta 10.000 euroko proiektuaren gastu eta inbertsioetarako. Gainera, proiektu honek publikoak bozkatutako aurkezpen onenaren 500 euroko saria ere jaso du.

Technopreneurship kategorian aldiz, Allergenius ekimena izan da irabazlea. Proiektu hau Teknologia Biomedikoen Unibertsitate Masterreko ikasleak diren Ainhoa Artola, Malen Herruzo eta Judith Zubiak garatu dute, eta alergiak kontrolatzeko soluzio ez-inbaditzaileak garatzea du helburu.

Elkarlanean antolatutako ekimena

Enpresa Sortuz ekimenak beka formatuan zein sari ekonomiko gisa 100.000€ baino gehiago banatuko ditu, eta hau ez litzake posible izango kolaboratzaileen babesik gabe.

Fagor Taldearen baitan dagoen Gizabidea Fundazioa da babesle nagusia, Orbea S.Coop-ekin batera. Hauek gain MONDRAGON Korporazioak, Fagor Ederlanek Stirling Zentruak, Saiolanek, Galbainek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Laboral Kutxako Gazte Enpresak eta GARAIA Parke Teknologikoak ere babesa ematen diote lehiaketari.

InclusiPHE proiektua bukaerara iristear



Proiektuan parte hartu duten erakundeen ordezkariak gure ingurunea bisitatu dute.

IKASLEEK EUROPAKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN DUTEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AUTODIAGNOSTIKORAKO TRESNA BAT GARATZEN DUEN PROIEKTUA DA

Mondragon Unibertsitatea InclusiPHE Europar Batasunak finantzaturako proiektua da, Erasmus+ 2020 programaren esparruan kokatzen dena. 2020ko irailean martxan jarritako proiektua honek 36 hilabeteko iraupena du, eta Mondragon Unibertsitatea du buru, Europako beste 7 erakundek bertan parte hartzen dutelarik. Oro har, InclusiPHE proiektuaren helburu nagusia Goi Mailako Hezkuntzako Erakunde Profesionaletan ingurune inklusiboagoa lortzen laguntzea da, ikasle ez-tradizionalek beraien erakunde akademikoaren bizitzan duten parte-hartzea areagotzeko

ekintzak abian jarritz.

Kalitatezko ikaskuntza bat helburu

Ikasle guztien parte-hartze inklusiborako politikak, mekanismoak eta praktikak hobetzera bideratuta dago proiektua, haien aurrekari pertsonalak kontuan izan gabe. Kolektibo horiek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren alderdi guztietan inplikatzeko du helburu, beraien ikaskuntza-esperientzia hobetu, kalitatea bermatu eta erakundearen zein ikaslearen bizitzaren gaineko erabaki instituzionalak hartzeko, zentzurik zabalenean.

Enpresa-talentuaren diploma banaketa

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK 250 DIPLOMA EMAN DIZKIE TALENTU ETA ENPRESA KUDEAKETA ARLOKO IKASKETAK AMAITU DITUZTENEI



250 pertsonak jaso dute dagokien diploma.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak gradu eta graduondoko ikasketak egin dituztenen diplomak banatu ditu Donostiako Kursoarean. Guztira, 250 ikaslek jaso dituzte talentuaren eta enpresen kudeaketaren arloko diplomak.

105 ikasle graduatu dira Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan (myGADE Dual) Oñati eta Bidasoako campusetan (65 eta 40, hurrenez hurren), eta beste 145 ikaslek titulua lortu dute Unibertsitateak eskaintzen dituen masterretako bat amaitu ondoren, besteak beste: Erakundeak Nazioartekotzeko Masterra, Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritzako Masterra, Pertsonen Talentuaren Kudeaketa

Estrategikoko Masterra, Marketin Digitaleko Masterra, eta Pertsonen eta Harreman Sistemen Lidergoaren eta Coaching-aren eremuko profesionalentzako beste programa batzuk.

Ordezkaritza zabala ekitaldian

Ekitaldian Mondragon Unibertsitateko Vicente Atxa errektorea eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Lander Beloki dekanoa izan ziren. Bestalde, Leire Mugerzak, MONDRAGON Korporazioko Batzorde Iraunkor eta Kongresuko lehendakari eta Eroskiko Kontseilu Errektoreko lehendakariak, hitzaldi bat eskaini zuten.

Masterra: Robotika eta Automozioa - Nazioarteko Diploma Bikoitzaren Ibilbidea

EIT MANUFACTURING BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIAREN EUROPAKO INSTITUTUAK BILBO AS FABRIK CAMPUSEAN MASTERRA IKASTEKO BEKAK ESKAINTZEN DITU

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Unibertsitateko Robotika eta Kontrol Sistemen Unibertsitate Masterrak programa berezi bat du duela hiru urtetik, Europako beste unibertsitate batzuetan bigarren ikasturte egiteko aukera ematen duena, eta, gainera, hainbat beka eskaintzen ditu horretarako. EIT Manufacturing Nazioarteko Diploma Bikoitzaren Ibilbidea da, eta EIT Manufacturing proiektuaren barruan kokatzen da, Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Institutuaren (EIT) barruko berrikuntza-komunitatea. Mondragon Unibertsitatea eta MONDRAGON Korporazioa Europako, unibertsitate eta zentro teknologikok osatzen duten erkidego partzuergo honen 74 kideetako batzuk dira.

Irisgarria eta nazioartekoa

Master honetan interesa duten pertsonen EIT Manufacturing Institutuak eskaintzen dituen beka eskuratu ahal izango dituzte. Beka bakoitza hautagai-zerrendaren arabera eskuratu ahal izango da:

- Matrikularen konpentsazioa: 16.000 €
- Mantenerako beka: 750 €/ hileko
- Mugikortasunerako beka: 1.500 €

Programan parte hartzen duten pertsonen aukera izango dute, halaber, ikasketak eta ordaindutako praktikak Euskadiko zein bigarren ikasturteko xede-herrialdeko enpresetan uztartzeko.

Basque Culinary World Prize 2022

EBRU BAYBARA SUKALDARI TURKIARRAK IRABAZI DU BASQUE CULINARY WORLD PRIZE 2023 NAZIOARTEKO SARIA, BASQUE CULINARY CENTERREK ETA EUSKO JAURLARITZAK EMANA, EUSKADI-BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA INTEGRALAREN ESPARRUAN.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea

| Basque Culinary Center-eko Nazioarteko Batzordeko ordezkariak osatutako epaimahaiak, Joan Roca sukaldaria buru duela, Ebru chef irabazle aukeratu du, gastronomiatik abiatuta Siriako mugatik gertu dagoen Mardinen integrazio kulturala lortzen laguntzeagatik, garapen sozialaren eta biodibertsitatearen aldeko apustua egiteagatik, eta bi hamarkadatan inplikatzegatik eskualdeko migrazio-krisian, klima-aldaketaren aurrean lurzorua biziberritzean eta 2023ko otsailean Turkian jasandako lurrikararen tragediak eskatu duen laguntza humanitarioa errazten.

Basque Culinary World Prizek behin eta berriz aitortu du sektore honetako profesionalen gastronomian aurrerapen eta eraldaketa sozialak bultzatzeko tresna bilakatzeara.

Aipamen bereziak

Horrez gain, epaimahaiak beste bi chef saritu ditu; Nicole Pisani (Erresuma Batua) eta Heidi Bjerkani (Norvegia), aipamen bereziak egin dizkie ikastetxeetan hauren elikadura bereganatzeko modua iraultzeagatik eta ekonomia zirkularrean eta errealitate sozialarekin konprometitutako gastronomian oinarritutako zaharberritze eredu ugari ezartzeagatik.



Ebru Baybara sukaldari turkiarra.

Ze ate irekitzen ditu ikerketak?

INGENIARITZAKO MASTERRETAKO LEHEN MAILAKO IKASLEEK IKERKETA ENPRESA MAILAN ZEIN GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN EGINDAKO PROIEKTUETAN BALIOAN JARTZEN ZUEN JARDUNALDI BATERA JOATEKO AUKERA IZAN ZUTEN.



Ikerketari buruz hausnartzeko jardunaldia.

Goi Eskola Politeknikoa | Apirilaren 28an, Iturripeko campusean, “Ze ate irekitzen ditu ikerketak?” izeneko jardunaldia egin zen, Fakultateko ingeniartzako master guztietako ikasleei zuzendua. Jardunaldia Ainhoa Etxebarria kazetariak aurkeztu zuen, eta honen helburuak izan ziren (I) ikerketaren bidez enpresen lehiakortasuna eta hauek bizirauteko duten talentu beharra ikusaraztea eta (II) doktoregaien testigantzen bidez Eskola Politeknikoan egiten den ikerketa bistaratzea. Roberto Uribeberria ikerketa eta transferentzia koordinatzaileak adierazi zuenez, “jardunaldi hau antolatu nahi izan da gure ikasleak zientziaren balioaz sentsibilizatu eta ikerketa beraien etorkizuneko lan-irteera bezala baloratzeko.

Programa anitza

Uribeberriak jardunaldi honek Goi Eskola Politeknikoko ikertzaile gazteei ahotza emateko duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen.

Hori dela eta, eguna Elevator Pitch formatuko ponentzia batzuekin hasi zen, non Mondragon Unibertsitateko talentu gazteek beraien doktorego tesietan egiten ari ziren ikerketak azaldu zituzten. Goizak aurrera jarraitu zuen profesional eta aditu gonbidatu ezberdinek eskainitako pare bat hitzaldirekin. Victor Kuppersek “Afrontar la vida con entusiasmo” hitzaldia eskaini zuen, eta Miguel Ángel Carrerak erreleboa eman zion, “Ciencia Vasca en Marte” hitzaldiarekin. Azkenik, jardunaldiari amaiera emateko, bertaratutakoek “Empresa y Ciencia” izeneko solasaldiaz gozatu ahal izan zuten. Bertan, Bexen CArdioko Digna González, CAFeko Txomin Nieva eta Tubacexeko Alejandra López izan ziren.

Testuinguru eleaniztunetako alfabetatzea aztertzen Bilbon

ALFABETATZEA AZTERGAI IZAN ZUEN BILTZARRA ANTOLATU ZAN BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIAN



Nazioarteko zein bertako ikertzaileek hartu dute parte Bilboko biltzarrean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Alfabetatzea izan dute eztabaidagai Bilbao Berrikuntza Faktorian (BBFn), maiatzaren 18an eta 19an izandako nazioarteko biltzarrean. Ingurune eleaniztunean, ikasleek ama-hizkuntza eta beste hizkuntza batzuk (nazionalak edo nazioartekoak) mendera ditzatela ahalbidetu behar du hezkuntza-sistemak. Baina zer gertatzen da hori horrela ez denean? Zalantza hori eta beste asko argitzen saiatu ziren *Testuinguru eleaniztunetako alfabetatzea: ikerketa eta gelako praktika lotzen* biltzarrean. Ekitaldian parte hartu zuten nazioarteko hainbat unibertsitatek, tartean direla Alemaniako Universität Wien eta Norvegiako Norwegian

University of Science and Technology. Testuinguru eleaniztunetako alfabetatze diziplinarrari buruzko ikerketan ebidentzia berriak aurkeztea izan zan topaketaren helburua.

Arloetan alfabetatzearen garrantzia

Antolatzaileek talde-lanaren garrantzia azpimarratu dute. Haien iritziz, ikertzaileek eta irakasleek elkarrekin lan egin behar dute alfabetatze eleaniztunaren alorrean egiten diren aurrerapenak zehaztasunez ezagutzeko. Hala, askotariko eskarmentua, esperientziak eta hizkuntza-egoerak bizi dituzten irakasleak eta ikertzaileak bildu ditu biltzarrek, gaiari buruz hitz egiteko.

Gradu-amaierako euskarazko proiektuen sariak

Mondragon Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitateak eta MONDRAGON Korporazioak euskaraz egindako ikasketa-amaierako proiekturik onenei sariak eman zizkieten Otolara Jauregian. Aurtengo edizioan bi sarituak Goi Eskola Politeknikoko ikasleak izan dira.

Lehen saria Ianire Rabanete Gonzalez ikasleak lortu zuen Ulma Packaging-entzat egindako lanagatik eta bigarren saria aldiz Ainhoa Sarasola Olanok, Orkli-rentzat egindako proiektuagatik.

Mondragon Unibertsitateak eta MONDRAGON Korporazioak antolatutako sariaren hamabigarren edizioa izan da, eta hauen helburua da Unibertsitateko ikasleek enpresetan euskaraz ikasketa-amaierako proiektu gehiago egitea sustatzea.



Otolara jauregian jaso dituzte sariak irabazleek.

Luciaren dantza

JATETXEETAKO GOZOGINTZAKO ETA SUKALDARITZA GOZOKO MASTERREKO IKASLE TALDE BATEK ZUMAIKO LUCIA LACARRA DANTZARIARENGAN OINARRITUTAKO POSTREA SORTU DU

Lucia Lacarrak adierazi du dantzaren eta gastronomiaren balioetako batzuk partekatuak direla; biak ala biak diziplina, dedikazio eta pasio handia eskatzen duten arteak eta lanbideak dira.



Presentación del postre "La danza de Lucía".

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerrek, dantza eta gastronomia uztartuz, "La danza de Lucía" postrea aurkeztu du, Jatetxe eta Sukaldaritza Gozoko Masterreko ikasle talde batek eta Basque Culinary Centerreko sukaldaritza irakasleek sortua, Lucía

Lacarra dantzari zumaiar ezagunean inspiratuta.

Lucia Lacarrak adierazi duenez, dantzaren eta gastronomiaren balio batzuk bateragarriak dira, nahiz eta ez dirudien elkarren artean zerikusirik dutenik. Artistaren arabera, "bi diziplinak dedikazio eta pasio handia eskatzen duten arteak eta lanbideak dira".

Lucia Lacarra oso eskertuta agertu da Basque Culinary Centerren sorkuntza berri honekin: "Niretzat esperientzia zoragarria izan da etorkizuneko sukaldariak ezagutzea, beraientzat hitz egin eta dantzatzea, haiek inspiratzen laguntzeko eta ni pertsona eta dantzari gisa nor naizen ulertarazteko".

Errezeta originala

"La danza de Lucía" Basque Culinary Centerreko Jatetxeetako Gozogintza eta Sukaldaritza Gozoko Masterraren baitan sortutako erronka sortzaile baten emaitza izan da, eta María Nieves Pivaral, Elena Castro, Andrea Verónica Vieira eta María Ortega izan dira irabazleak.

Postreak txokolatezko apaingarri bat du, sagar berdez betetako mousse baten gainean dantzari batek egiten duen mugimendua irudikatzen duena. Horrela, Luciaren jaioterriko, Zumaiako, fruta nagusia irudikatu nahi da, sagarra. Bi konposizioak belus lila formako efektuarekin amaitu ziren, Lucia Lacarraren kolore gogokoena dena.

Moussearen inguruan, postreak masusta sorbetea eta mugurdiak ditu; Genoako bizkotxoa eta pistatxo-kresala; masusta krema; txokolate zuri, lima eta albakazko ganatzea; sagar berdearen jalea eta mugurdi freskoak.

Asmoa Luciaren dantza postrea aurkeztea da, mundu osoko jatetxeetako menuetan txerta dadin. Gainera, postrea Basque Culinary Centerreko gune gastronomikoren batean dastatu ahal izango da laster.

Leinnerrak ekintzaileen maila gorenean

Enpresagintza Fakultatea | Ekintzailetzan espezializatutako EMPRENDEDORES aldizkariak Espainian distiratsuenak diren 35 urtetik beherako ekintzaileen zerrenda argitaratu du, eta horien artean Enpresagintza Fakultateko LEINN Graduko zazpi graduatu daude.

Talentuaren aitortza

Álvaro Justribó ekintzailea Mazinn-en sortzaileetako bat da. Z belaunaldian espezializatutako aholkularitza enpresabat da, erakunde ezberdineigazteen enpresaerak ulertu eta haiekin konektatzeko estrategiak diseinatzen laguntzen diena.

Gorka Lorenzo ekintzaileak Aglaya Virtual sortu du, mundu birtualetan ekitaldiak, azokak eta kongresuak antolatzekeko plataforma.

Hernán Hernández eta Marta Maneja Gloopeko sortzaileek dira. Jan-tresnak fabrikatzen eta merkatu-

ratzen dituen enpresa bat da hau, erabilera bakarreko plastikoaren ordezkotako produktuak garatzen dituena.

Iñaki Aramburu eta Jorge Maylin Oroi plataformaren fundatzaileetako batzuk dira. Plataforma horrek errealitate birtualeko eduki terapeutikoak eskaintzen ditu, adinekoen ongizate emozionala sustatzeko, bidaia birtualen eta ariketa kognitiboaren bitartez.

Azkenik, Pau Pavón 20 urteko ekintzailea Examfy plataformaren sortzailea da. Plataforma horrek adimen artifiziala erabiltzen du ikastetxeetan ebaluazio-prozesua sinplifikatzeko.

BERRIKUNTZA

Berrikuntzaren olatuaren gainean

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK SORRERATIK IZAN DU BERRIKUNTZA BERE ILDO ESTRATEGIKOEN ARTEAN, ETA GAUR EGUN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO EKOSISTEMA BERRIAK GARATU DITU, GAI HONEN ABANGOARDIAN KOKATUZ. BERRIKUNTZA EKOSISTEMAK UNIBERTSITATEAREN ESPARRU EZBERDINETAN AURKITZEN DIRA, ETA BAKOITZAK BERE LAN EGITEKO MODU PROPIOA DU, HELBURUA BETI AURRERA EGITEA IZANIK.

Ekosistema bezala definitzen da toki konkritu bateko osagai fisiko eta bizidunen elkarren arteko harremanek osatzen duten sistema: sistema hauetako bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Mondragon Unibertsitatean zehar aurkitzen ditugun ekosistema ezberdinen kasuan berrikuntza bilakatzen da osagai nagusia, gaur egungo gizarteak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko ezinbesteko aldagaiak.

Berrikuntzarako Ekosistemaren adibide argia da Bilbao AS Fabrik eraikina, unibertsitatearen hiru fakultate espazio berean jasotzeaz gain, ekintzailatza proiektuak eta bestelako jarduerak jasotzen baititu bertan. Hala ere, diziplina anitzeko espazio hau alde batera utziz, fakultate bakoitzean berrikuntza ekosistema hauen adibide ezberdinak aurki daitezke.

Dorleta eraikina Eskoriatzan

2020ko irailean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Eskoriatzan inauguratutako Dorleta eraikina da adibide horietako bat. 2018an Fakultateko zenbait ikasle eta langilerekin urtebete inguruko prozesu kolektibo bat izan zen eraikinaren abiapuntua. Prozesu hau

fakultatearen osotasunerako egituratu zen, baina behin beharrianak identifikatuta Dorleta eraikinean jarri zen arreta, prozesuan zehar agertu zen berrikuntzarako ideia gorpuzteko hausnarketa espazio honetara bideratuz. Gauzak horrela, fakultaterako hezkuntza proiektu konkritu batetik abiatu zen eraikinaren diseinua, eta bertako irakasle bat arkitektoen taldean integratu zen, eraikinaren diseinua eta honen espazioak prozesuan zehar definitutako ideiak garatu ahal izateko baldintzak beteko zituela bermatuz. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hezkuntza proiektuaren baitan agertzen da komunitatearekin elkarlana bultzatzen duen eskola proiektu partekatuaren ideia, eta honi jarraituz eraikinaren diseinuan irekitasuna nabarmentzen da. Horretarako, kristaldun espazio ugari daude, taberna herriari irekia dago eta bertako liburutegian ekimen ezberdinak antolatzen dira.

Honetaz guztiaz gain, Dorleta eraikinean ere aurkitzen da KoLaborategia, Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikazio Laborategia, berrikuntzan azpimarra jartzerakoan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko proiekturikesanguratsuen. Hezkuntza

berrikuntzan esperimentatzeko espazio bat da, hezkuntza proiektuak ikertzen ari diren talde desberdinak harremantzeko espazioa. Proiektuak oinarri izanik, bertan prototipatzen da digitalizazioa, metodologia, euskara edo STEAM arloetan landutakoa, fakultateakurrera eramaten dituen proiektuari nortasun fisiko bat emanez.

KoLaborategia epe luzeko proiektu bat da, baina Dorleta eraikinak berrikuntza lantzeko aukera ezberdinak eskaintzen ditu, eta horien adibide garbiak dira besteak beste jardunaldi akademikoak, jardunaldi sozialak (drogen kontsumoaren arriskua, feminismoa...), erakusketak (ASpace 50 urte, gazte erakundeak...), musika kontzertuak (Gari, Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia...) edo aurkezpenak (akademikoak, aldizkariak, proiektuak...).




Berrikuntzarako Ekosistemaren adibide argia da Bilbao AS Fabrik eraikina, unibertsitatearen hiru fakultate espazio berean jasotzeaz gain, ekintzailatza proiektuak eta bestelako jarduerak jasotzen baititu.

Ekintzailatza berrituz

MTA (Mondragon Team Academy) Enpresagintza fakultateak martxan duen talde ekintzaileen komunitatea da, bertan ekintzailatza programetan partaide izan diren pertsona eta erakundeek parte hartzen dutelarik. Berrikuntza da programa hauen ardatz nagusia.

LEINN graduko irteera profesional nagusi bat berritzaileak izatea da, eta hau programa ezberdinetan oso barneratua dago. Bestalde, hezkuntza berrikuntza ere garrantzitsua da bertan, eredu pedagogiko berritzaile bat aplikatzen baita ikuspegi metodologikotik. Zentzu honetan, gradu eta profesionalentzako programez gain berrikuntzarako ekimen ezberdinak jarri dira martxan:




Diziplina anitzeko espazioak geroz eta ohikoagoak dira berrikuntza ekosistemetan.



Fakultate bakoitzak gizarte modernoak aurkezten dituen erronkei erantzuteko modua bilatzen du.



Berrikuntza sektore akademikoan zein gizartean aplikatzen da, prozesu ezberdinei balio erantsia eskainiz.



Kanpo eragileekin elkarlana ezinbestekoa da berrikuntzaren alorrean lidergo posizio bat egonkortzeko.



Argazkian Bilbao AS Fabrik,
Dorleta eraikina eta Goi Eskola
Politeknikoko laborategietako bat.



- GAZTENEK Berri: Lehen sektorean ekintzailetasuna eta berrikuntza sustatzeko garatu den programa da, Eusko Jaurlaritza eta hiru foru aldundien babesarekin.
- B-Global: Nazioarteko talentu ekintzailea erakartzeko programa bat da, eta bertan nazioarteko gazteek proiektu berritzaileak garatuko dituzte gure lurraldean. Erronka hauek Eroski, Orbea edo Laboral Kutxa bezalako enpresek proposatu dituzte, nazioarteko talentu ekintzaile hau beraien erakundeetan integrazteko helburuarekin.
- Fintech-eko ekintzailetasuna bultzatzeko garatutako jarduerak: berrikuntza irekiko programa eta Hackathon (uztailak 13 eta 14 gauzatuko



LEINN-MTatik 80 enpresa sortu dira eta hauetatik 30 baino gehiago startup kontsideratu daitezke. Egresatuen %35ak enpresa berri bat sortzen du graduatu eta urtebetera.

dena). BBFko espazioan garatu den berrikuntza irekiko programa eta Hackathon-a.

- Platform Coops: Plataforma kooperatibak sustatzeko garatzen diren formakuntza programak eta inkubazio prozesuak.
- T-Program: ITarekin garatutako elkarlaneko proiektu bat da, eta bertan proiektu teknologikoak negozio aukera bilatzeko enpresatako barne ekintzaileak hezten dira.

Gaur egun martxan dauden proiektuez gain, MTA-k etorkizunera begira protagonista izateko asmoa du, eta hazten ari den komunitatea bultzatu eta dinamizatzea definitzen da komunitatearen helburu garrantzitsuenetako bat bezala. Zentzu

honetan, erronkanagusienetakobatenpresa eta proiektu berriak sortzen jarraitu ahal izatea da, gizartean inpaktu positibo izaten jarraitzeko. Izan ere, orain arte izandako ibilbidea aztertuta, LEINN-MTatik 80 enpresa sortu dira eta hauetatik 30 baino gehiago startup kontsideratu daitezke. Horrez gain, egresatuen %35ak enpresa berri bat sortzen du graduatu eta urtebetera.

Egitasmo ezberdinak Goi Eskola Politeknikoan

Goi Eskola Politeknikoak etorkizunera begira lanean dihardu orainaldian, eta zentzu honetan Berrikuntza Ekosistema ezberdinak ditu martxan.

MONDRAGON ZTIM HUB dugu Berrikuntza Ekosistema hauetako bat, gazteengan ZTIM bokazioak sustatu eta

Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika arloekiko interesa piztea helburu duen egitasmoa da. Egitasmoa sare egitura batean antolatzen da, eta eskualdez-ekualde eratutako nodoek tokian tokiko errealitatea baliatzen dute ZTIM arloetan gazteengan interesa pizteko eta ZTIM lanbideak bistaratzeko. Honen harira, zenbait eragile ZTIM bokazioak sustatzeko ekintzetan lanean ari dira, eta proiektuak hauen arteko lankidetzaregonkorra eta iraukorra ezarri nahi du, gizarte irtenbide bateratua eta integrala eskaini ahal izateko.

Bigarren ekosistema Silver Economy bezala ezagutzen den sektorerak aplikatzen da, etengabeko berrikuntza eskatzen duen sektorea izanik, Goi Eskola Politeknikoak paper aktiboa jokatzeko apustua egin du. Aurreikuspenen arabera, Euskadiko biztanleriaren % 45 baino gehiago 55 urtetik gorakoa izango da, eta gizarte berri honen erronkei erantzuteko sortu da Urdulizen kokatuta dagoen Nagusi Intelligence Center. Eragile ugari osatzen duten ekosistema bat da hau, eta bertan aurki daitezke hartzaileak (gaixoak, mendekoak, zaintzaileak, profesionalak...), sistema soziosanitarioko eragileak (Osakidetza edo gizarte-arretako zerbitzuko entitateak), hirugarren sektoreko eragileak (elkarteak, GKEak), I+G+b eragileak, administrazio publikoak (udalak, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza), ekintzaileak, enpresak eta enpresari elkarteak, eta baita eragile akademikoak ere (besteak beste Goi Eskola Politeknikoa). Proiektuak hiru ardatz ditu, eta Mondragon Unibertsitateak NIC PRESTAKUNTZA jarduerak ardatz koordinatzen du. Bertan zilarrezko ekonomiaren, bio-ingeniaritzaren eta osasun-teknologiaren arloetako prestakuntza eta ikerketa sustatzen da, sektoreko profesionalak prestatzen dira eta osasunaren gaineko lankidetzak eta transferentzia proiektuak bultzatzen dira.

Goi Eskola Politeknikoaren berrikuntza ekosistemekin bukatzeko, HIREKIN proiektuaz aritu beharra dugu, ekintzailetza, intra-ekintzailetza, ikerkuntza eta hezkuntza, eta hainbat eragileren arteko ezagutza-transferentzia ahalbidetuko duen elkar-lankidetzako espazio berria. Eraikuntza fasean dagoen eraikin berriaren industriaren eta teknologia-sektorearen deskarbonizazioa, digitalizazioa eta jasangarritasuna sustatuko dira, industria

“
Euskadiko biztanleriaren % 45 baino gehiago 55 urtetik gorakoa izango da, eta gizarte berri honen erronkei erantzuteko sortu da Urdulizen kokatuta dagoen Nagusi Intelligence Center.

jasangarriaren arloko balio erantsi handiko erreferentziatzeko zentroa bilakatzeko helburuarekin lan eginez. HIREKIN zentroaren instalazioek 6.000 metro karratu izango dituzte, eta

bertan prototipoak, simulazioak eta esperimentuak egiteko ekipamenduz hornitutako industria-espazio handi bat jasoko da, lantegi eta zenbatze-gelak edo sorkuntzarako guneak eta bilera-gelak ere izateaz gain.

Gastronomy Open Ecosystem

Etengabeko berrikuntzaren aldeko hautuak bilakatu du Basque Culinary Center mundu mailako erreferente sektore gastronomikoan, eta etorkizunera begira ere bide horretatik jarraitu nahi du. Helburu horri erantzuten dio GOek (Gastronomy Open Ecosystem), gastronomiarekiko grina talentuarekin, ikerketarekin, berrikuntzarekin eta ekintzailetzarekin uztartzen duen proiektuak. Nazioartean talentua berritzeko eta erakartzeko ekosistema bat bezala eratu da, eta Donostiako Gros

auzoan eraikitzen ari den espazio berri batean kokatuko da. GOe proiektuaren helburua prestakuntza aurreratua, ikerketa, berrikuntza eta ekintzailetza ardatz dituen ekosistema gastronomiko berri bat sortzea da.

“
GOe proiektuaren helburua prestakuntza aurreratua, ikerketa, berrikuntza eta ekintzailetza ardatz dituen ekosistema gastronomiko berri bat sortzea da.

On the wave of innovation

MONDRAGON UNIBERTSITATEA HAS HAD INNOVATION AMONG ITS STRATEGIC LINES SINCE ITS CREATION AND HAS DEVELOPED NEW ECOSYSTEMS TO PROMOTE IT, PLACING ITSELF AT THE FOREFRONT OF THIS ISSUE. THE INNOVATION ECOSYSTEMS ARE LOCATED THROUGHOUT THE UNIVERSITY'S DIFFERENT SPACES AND EACH ONE HAS ITS OWN OPERATING METHOD, WITH THE AIM OF CONTINUOUS IMPROVEMENT.

Ecosystem is defined as the system formed by the relationships between the physical and living components of a specific place, and each of these systems has its own characteristics. A clear example of an innovation ecosystem is the Bilbao AS Fabrik building, which houses three of the university's faculties, as well as entrepreneurship projects and other activities. Each faculty also has its own example of innovation ecosystems, such as the Dorleta building in the Faculty of Humanities and Education Sciences. This building was designed with a specific educational project, using open spaces that promote collaboration with the community.

In addition, the Laboratory for Education and Communication for Digital Society, called KoLaborategia, is located in the Dorleta building. This laboratory is a space to experiment with educational innovation and associated different research groups in educational projects such as digitization, methodology, Basque language or STEAM. The building also offers different possibilities to work on innovation through academic and social workshops, exhibitions, music concerts and presentations.

Innovating in entrepreneurship

The Faculty of Business also has the entrepreneurial community called MTA (Mondragon Team Academy), which focuses on entrepreneurship and innovation programs within its entrepreneurial and innovation degree, LEINN. These include different innovation initiatives and programs in the field of

entrepreneurship, such as GAZTENEK Berri, B-Global, Fintech entrepreneur support activities like HACKATHON, Platform Coops and T-Program.

The university's Polytechnic School works on different innovation ecosystems, such as the MONDRAGON ZTIM HUB, which seeks to promote STEAM careers for young adults, and the Nagusi Intelligence Center, which focuses on the Silver Economy sector.

It also has the HIREKIN project, a new collaborative space that promotes entrepreneurship, research, education and knowledge transfer. It is located in a building currently under construction that will focus on decarbonization, digitalization and sustainability in industry and the technology sector. The aim is to become a center of reference in sustainable, high-value-added industry with technology for prototypes, simulations and experiments, as well as meeting rooms and creation areas.

Gastronomy Open Ecosystem

The Basque Culinary Center has created the Gastronomy Open Ecosystem (GOe) project, which seeks to combine the passion for gastronomy with innovation, research and entrepreneurship. GOe aims to create a new culinary ecosystem focused on advanced training, research and innovation. It will be located in a new space, currently under construction, in San Sebastian's Gros neighborhood, and aims to attract international talent and thus consolidate itself as a world reference in the culinary sector.

Collaboration and Innovation: Unlocking the Power of Synergy

KangHyun Rio Kim CPO at HBM Social Coop, MTA Seoul Lab Co-founder & Teamcoach



In various contexts, Collaboration and Innovation are often perceived as incongruous concepts that do not naturally align. If we were to visualize each word, distinct images would emerge - a collective group united in collaboration, contrasted with a solitary visionary presenting their ideas to an audience. But is this an accurate representation? Does innovation truly clash with collaboration?

Innovation, deeply rooted in the Latin word "innovare" meaning "something new from within," perfectly encapsulates its three core components: 'new ideas,' 'creating value,' and 'practice.' Innovation is not merely about creating novel technology with sleek designs; rather, it is the implementation of new ideas that generate societal value.

The first component, 'new ideas,' implies concepts that do not already exist within a given society. Since innovation is contextual, something considered old in one society may be groundbreaking in another. However, not all new ideas automatically qualify as innovation. The second component, 'creating value,' necessitates validation by society. The satisfaction of customers, users, and society as a whole determines the true value of an innovative idea. Finally, valuable ideas must be actualized through real 'practice' - not solely performance but the creation of meaning through interaction and communication within society.

Collaboration, derived from 'col' (together) and 'labore' (economic activity of humankind to generate

value), embodies the notion of creating value collectively for society. Both collaboration and innovation share a common objective of value creation and societal contribution. In fact, collaboration serves as a pivotal key to driving innovation forward.

Firstly, collaboration fosters a diverse source of ideas. Innovation thrives on creativity, requiring diverse inputs to generate out-of-the-box ideas. One effective approach is 'brainstorming,' a collaborative process that

Innovation is not merely about creating novel technology with sleek designs; rather, it is the implementation of new ideas that generate societal value.

encourages idea generation. Even within a single society sharing similar social contexts, each individual possesses a unique interpretation code, serving as a wellspring for novel ideas.

Secondly, collaboration plays a complementary role in addressing the complex needs of society. In an increasingly intricate world, diverse skills and knowledge are essential for value creation. Given the rapid pace of societal change, it is impractical to acquire

all the necessary knowledge and skills individually. Collaboration allows for the pooling of diverse expertise, enabling more efficient and comprehensive value creation.

Lastly, collaboration cultivates shared knowledge, a valuable asset in the digital transformation era. In the digital economy, knowledge serves as a crucial component for value creation, and its impact multiplies when shared within a collaborative ecosystem.

However, fostering sustainable collaboration can be challenging, as trust validation can incur substantial costs. To create a more sustainable collaborative ecosystem, several key ingredients are essential. These include a shared aim of learning from one another, prioritizing process over immediate results, embracing diversity, and adhering to shared values and principles. Furthermore, a strong foundation built on real-world practice enhances the sustainability of collaborative efforts.

In conclusion, Collaboration and Innovation are not opposing forces but rather two sides of the same coin. Collaboration fuels innovation by providing a rich source of diverse ideas, addressing complex societal needs, and creating shared knowledge assets. By cultivating a sustainable collaborative ecosystem rooted in trust and common principles, we can unleash the full potential of collaboration, propelling us towards a future marked by continuous innovation and societal transformation.



“Bilbao AS Fabrik sinergiak eta aukera berriak bultzatu nahi dituen ekosistema propioa da”

Aitor Bediaga

Bilbao AS Fabrikeko koordinatzailea

IDEAZIO-PROZESUA ETA INSTALAZIO-FASE PROGRESIBO BAT GAINDITU ONDOREN, BILBAO AS FABRIK BETE-BETEANDABIL. ERAIKINAKOLOREA HARTZEN ARIDA, ETA ZORROTZAURRE UHARTEAN EKOSISTEMA BERRITZAILE ERAGILE BEZALA KOKATU NAHI DA. ERAIKINAK IZATEN ARI DEN BILAKAERAZ ARITU GARA BERTAKO KOORDINATZAILE DEN AITOR BEDIAGAREKIN.

Zer da Bilbao AS Fabrik? Zerbitzu aurreratuen eta ekonomia digitalaren esparruko ekosistema gisa definitzen dugu, talentua sortzea eta tokiko enpresen lehiakortasuna hobetzea helburu duena. Bilboko Udalaren proiektua da, eta Mondragon Unibertsitateak koordinatzen du. Gaur egun ekintzaileak, zerbitzu aurreratuen sektoreko profesionalak, graduak eta graduondoko ikasleak eta oro har gizartearen elkarbizitzarako gunea da.

Gainera, Bilbao AS Fabrik



“**Beste toki batzuetan interesgarriak diruditen sinergiak hemen ezinbestekoak bilakatzen dira**”

Zorrotzaurre uhartearen birgaitzearen proiektuan protagonista nagusienetako bat da eta bertan eragiteko ardura hori dagokio.

Nolako aizen sorkuntza prozesua? Bilboko Udalak Zorrotzaurre uhartean proiektu berritzaile bat diseinatu eta gauzatzeko sortu zen proiektua. Proiektua martxan zegoela sartzen da Mondragon Unibertsitatea, berau kudeatzeko nazioarteko lehiaketa bat irabazterakoan. Herrialde ezberdinetako ia 400 proposamenen artean hautatu zuten gure proposamena, eta aurrera eramateko ia 6 milioi euroko finantzaketa lortu zuen Hiri Ekintza Berritzaileen Programatik.

Guk aurretik bageneukan Bilbon ekintzailtzako beste ekosistema baten esperientzia, Bilbao Berrikuntza Faktoriarena. Oraingoan filosofia hori beste eraikin batera eramateko hautua

egin genuen, eta bertan enpresen eta ikasleen arteko sinergiak bultzatzeaz gain, hiriko laborategien ideia garatzeko asmoa zegoen.

Proiektua eman zigutenetik eta Europako Batzordearen finantzazioa lortu genuenetik, Luis Berasategik koordinatutako Mondragon Unibertsitateko ikertzaile talde batek bi urte inguru eman zituen proiektuaren ideia lantzen, eraikina oraindik existitzen ez zenean.

Imajinatzen dut helburuak aurrera eramateko eraikinaren arkitekturak ere paper bat jokatzen duela. Bai, noski. Eraikina Bilboko Udaleko arkitektoak diseinatu dago, baina uneoro honen erabilera zein izango den kontuan izanik. Guk lorategi txiki bat bezala definitzen dugu, zenbat eta landare aniztasun handiagoa egon orduan eta hobeto loratzen dena. Berezko ekosistema da, sinergiaketa aukera berriak bultzatu nahi dituen. Espazio fisiko berean hainbat eragile dituzunean jardueragarigaratzen, zaila da berrikuntzaren eta hibridazioaren txinparta ez sortzea.

Gainera, fisikoki Mondragon Unibertsitateko gainerako egoitzetatik urrun egoteak behartu gauzak modu ezberdin batean egiteko aukera ematen digu, eta proiektuan parte hartzen duten eragile guztiek prozesuetan parte hartzen dute.

Alde horretatik, aniztasun hori guztia eta eguneroko jardura frenetiko jasateko prestatutako eraikina dugu, eta, gainera, jardura frenetiko hori ikustea nahi dugu, hona datorren edozeinen aurrean egotea. Horregatik, kristalezko espazio asko ditugu (gelak edo bilera-gelak) edo espazio ireki ugari. Material nagusiak beira, zura eta burdina dira, aurretik hemen zegoen Beta II eraikinaren omenez. Garrantzitsua da toki honek duen jatorri industrialagoratzeari, industria berrietarako trantsizio hau egin ahal izateko. Zorrotzaurre birgaitze proiektu bat da, antzinako penintsula industrial bat uharte dinamiko eta berritzaile bihurtuko duena.

Gauregun Mondragon Unibertsitateak duen diziplina arteko campus bakarra da. Abantaila bat suposatzen al du?

Beste toki batzuetan interesgarriak diruditen sinergiak hemen beharrezkoak bilakatzen dira; inprimagailuen koordinazioa, materialen erosketa edo WIFI sarearen kudeaketa bezalako oinarritzko gauzetatik abiatuta adibidez. Gero, jakina, erronka erakargarri ezberdinei aurre egiten diegu. Hauen artean ditugu adibidez incoming ikasleentzako fakultateen arteko ibilbide partekatuak diseinatzea edo hiriko laborategiek fakultateetako prestakuntza-programetan eskaintzen dizkiguten aukerak txertatzea.

Eta hasi besterik ez gara egin. Ikusten ditugun aukerak amaigabeak dira. Batez ere, ikasleentzat. Etorbizunean, beste ezagutza-adar batzuetako jardueretan parte hartu ahal izango dute ikasleek, eta beste esparru batzuetara hurbildu ahal izango dira, azaletik bada ere.

Une honetan, zeintzuk dira Bilbao AS Fabrikek aurretik dituen erronkarik garrantzitsuenak? Oraintxe bertan hiru erronka handi ditugu aurretik. Batek kanpoaldearekin du zerikusia, uhartean sortzen ari den ekosisteman nola txertatzeko moduan alegia, sinergiak aprobetxatuz eta Bilbao AS Fabrikatik zer ekarpen egin dezakegun ikusiz. Beste bi erronka nagusiak barne izaerakotzat joko genituzke. Horietako batek modu kolaboratiboan sortzen diren aukeren aprobetxamenduari egiten dio erreferentzia, espazio honetan bizi garen eragile ezberdinek arlo indibidualetik arlo kolektibora egiten dugun ekarpenari egokitua. Hirugarrenak, berriz, ekintzaile eta enpresa berritzaileak eraikineran nola erakartzen ditugun eta ekosistemari egiten dioten ekarpenari dagokio.



“**Gure erronka campusa ingurunearen garapenean eragingo duten kalitatezko edukiez betetzea da**”

Zeintzuk dira campusak etorkizunera begira dituen aureikuspenak? Zenbakiez ari bagara, bi urtetan 1000 ikasle baino gehiago, 50 profesional baino gehiago eta 30 ekimen ekintzaile baino gehiago izango ditugu hemen. Une honetan eraikina ia beteta dago, eta guztiz betetzen denean, etengabe hobetzen jarraitzeko gai izan behar gara, campusa ahalik eta edukirik onenaz hornitzen saiatuz.

Bestalde, inguruneak eraldaketarekin jarraituko du, Zorrotzaurre uharte dinamiko eta berritzaile baten bihurtuko da. Urte gutxiren buruan, ekosistema hau handiagoa izango da zentro teknologikoekin, beste unibertsitate batzuekin eta beste eragile batzuekin, proiektu hau orain dena baino aberatsagoa izango da.

Erronka berriak talentuaren kudeaketan

DATORREN IRAILEAN IRITSIKO DA BARTZELONARA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO TALENTUAREN ETA PERTSONEN KUDEAKETA ESTRATEGIKOKO UNIBERTSITATE MASTERRA: MTALENT. BEGOÑA ECHABURU KOORDINATZAILEAK PROIEKTUARI BURUZ HITZ EGIN DIGU.



Begoña Echaburuk eta bere taldeak egiten duten masterra zabaltzeko lana.

Enpresagintza Fakultatea | Nola jar ditzakegu benetan pertsonak erakunde baten erdigunean?

Parte hartu dudako proiektu guztiek erakutsi didate pertsonak erdigunean jartzea eguneroko erabakietan eta erabaki estrategikoetan kontuan hartzea dela, sortzeko eta hazteko autonomia eta askatasuna eskaintzea eta, gainera, hori guztia taldean egitea.

Oraindik ba al du zentzurik ikasteak edo hobe al da merkatura abiatu eta esperientziatik ikastea? Ikaskuntzarik gabe zaila da bilakaera profesional zein pertsonalik izatea. Edozein formula baliozkoa izan daiteke, eta pertsona bakoitzaren arabera izango da, zer testuingurutan egiten duen. Bidean elkarlanerako duzun taldeak adibidez eragina izango du, zalantzarik gabe. Egokiena ikasteko modu ezberdinak uztartzea da, betiere hauek gure lanaren egunerokotasunera hurbiltzen badira.

Hitz egin dezagun lanaren etorkizunaz: adimen artifizialak eta teknologia berriak lanbideak izan daitezke? Nola presta gaitzake honetarako?

Gainontzeko alorretan bezala, lan munduan ere teknologia aurpegi bikoitza du. Garrantzitsuena, nire ustez, teknologia bat zergatik eta zertarako den lagungarria eta horrek gure pertsonarengan zer eragin izan dezakeen argi izatea da.

Edonola ere, aldagai hori ezin dugu alde batera utzi; adi egon behar dugu aurrerapenei eta gauek

pertsonengan duten eragina, zein pertsonen gaitasun eta hauen lan-testuinguruak eraldatzeko moduari buruz.

Ze gaitasun entrenatu behar ditugu gure karrera profesionalaren garapenean arrakasta izateko?

Gaitasun iburuzko azterlan askok gaitasunen garapenean garrantzia jartzen digute mahai gainean, Soft skills bezala ezagutzen ditugunak. Terminologia horrek bere baitan jasotzen ditu arazoak konpontzea, sormena, taldean lan egitea, adimen emozionala, aldaketara egokitzea... Hala ere, gure etorkizuna eta garapen profesionala, ziur asko, horien mende egongo dira, gaitasun teknikoaren mende baino gehiago.

Zer aholku emango zenuke gazte bati bere garapen profesionalan laguntzeko?

Lehenik eta behin pazientzia izan dezan. Gauzak egiteko denbora beti dago, eta garrantzitsua da hartzen diren erabakiak onak izatea. Bere barrenak esaten diona arretaz entzun dezala eta bere nahien arabera jokatu dezala.

Batzuetan aukera ezberdinak alde batera uzten ditugu, prestakuntza baten ondoren lan bat ez aurkitzeko beldurrez, baina ziur nago pertsona guztiek hazteko eta garatzeko leku bat aurki dezaketela, baldin eta beraien grina eta talentuak mugiarazten dituen.

Enpresetan barne-ekintzailtza sustatzen duten metodologiak

22-23 IKASTURTEAN GAITZEN METODOLOGIA APLIKATU DA BILIBIN CIRCULAR ENPRESAN, ETA 23-24 IKASTURTEAN ENPRESA BERRIAK SARTZEA ESPERO DA



Goi Eskola Politeknikoa | Gipuzkoako enpresetan barne-ekintzailtza eredu bat ezartzeko GAITZEN metodologia erabiltzen ari da Gai Eskola Politeknikoaren Berrikuntza-Kudeaketa-Antolaketa Ikerketa Taldea hainbat enpresatan 2020az geroztik. Ekimen hau aholkularitza enpresa ezberdin eskutik gidatzen dihardute, eta bi mailatan frogatu da eraginkorra dela:

- **MACRO 1 INPAKTUA:** Laguntza eta trebakuntza programetan parte hartzen duten ETEen profil ekintzailearen gaineko eragin positiboak.

- **MACRO 2 INPAKTUA:** Inpaktu positiboak barne-ekintzailtzari laguntzeko ekosisteman, eragileen eta interesen arteko ezagutza hobea eta tresna berrien bilduma baten bidez: trebakuntza-programak eta barne-ekintzailtza eredu bat.

Inpaktu erreala neurtu

Ikasturte honetan, 22-23, GAITZEN BILIBIN CIRCULAR enpresan ezarri da. Enpresa horrek Horeca, kultura eta industria sektoreetako beste enpresa eta erakunde batzuekin batera lan egiten du jasangarritasunerako trantsizioan. Zehazki, honako inpaktu hauek lortzeko lanean dihardu:

- Erakundea balio erantsi handiagoko negozio-ereduen proposamenak garatzeko eta, sistematizazioan oinarrituta, eguneroko ingurumen-kudeaketa txertatzeko bideratu eta horretan gaitzea.
- Enpleguaren sorkuntzan eraginkorragoa eta lehiakorra izan dadin bultzatzea, barne-ekintzailtza eta negozio-ildo berrien sorkuntza eta garapenean balio erantsia gehituz.
- Lehiakortasuna eta iraunkortasuna handitzea, negozio-eredu berriak identifikatu eta hedatzeari esker.

GAITZEN proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du, eta lortutako emaitza onei esker, baliteke enpresa berriak proiektuan sartzea 23-24 ikasturtean zehar.

MBA Executiven XIII. edizioa

Enpresagintza Fakultatea | Gipuzkoako Ganberak eta Mondragon Unibertsitateak MBA Executive-ren hamahirugarren edizioaren amaiera ekitaldia antolatu zuten. Bi erakundeek 2009an jarri zuten abian master hau, eta honen helburua enpresek aurre egin behar dieten erronka eta proiektuak kudeatzeko beharrezkoak diren tresnak eguneratzea eta indartzea da, nazioarteko eta kulturako testuinguruaren aniztasuna kontuan hartuta. Gainera, enpresen eta enpresa-kudeaketaren ikuspegi integrala eta sistemikoa eskaintzen du, arlo garrantzitsu guztietan.

Orotariko partaideak

Programako parte-hartzaile berriek industria zein zerbitzu-sektoreko enpresetan dute jatorria, eta bertan erantzukizuneko postuak dituzte, eta guztiek esperientzia profesional luzea eta prestakuntza akademiko anitza dute.

Ikasleek enpresaren arlo funtzionalak aztertze eskola saioak izan dituzte (Finantzak, Estrategia, Marketina, Eragiketak, Berrikuntza-Ekintzailatza, Pertsonak), eta beraien zuzendaritza eta lidergo trebetasunak testuinguru ezberdinetan ere landu dituzte. Denbora horretan diziplina anitzeko irakasle talde batek lagundu die, unibertsitatearen, aholkularitzaren eta enpresaren ikuspegiak eta esperientziak konbinatuz.



MBA Executive parte-hartze arrakastatsua izan da berriro.

FATECO bukatu da

IKERKETA-PROIEKTUAREN HELBURUA AUTOMOZIOKO OSAGAIEN EGITURAZKO SEGURITASUNA HOBETZEA IZAN DA, ETA EUROPAKO BATZORDEAREN LAGUNTZA ETA FINANTZIAZIOA IZAN DU, RESEARCH FUND COAL AND STEEL DEIALDIAREN BIDEZ.



FATECOk proiektuaren emaitzak jakinarazi ditu.

Goi Eskola Politeknikoa | Apirilaren amaieran egin zen FATECO ikerketa-proiektuaren azken bilera. Proiektu hau automobilgintzako osagaien egiturazko segurtasuna hobetzeko garatu da, akaberako fabrikazio-prozesu berritzaileak eta

ingurumen inpaktu txikiagoa dutenak aplikatuz. Horretarako, ikerketa aldaketa-kaxaren ardatzak eta engranajeetan oinarritu da, eta sakonki aztertu dituzte hainbat hozgarri mota erabiltzearen ondorioak, akabera-prozesu konbentzionaletan eta berritzaileetan, haien erabilera murriztuz, eta, beraz, ingurumenean duten eragina ere murriztuz.

Prozesu aberasgarria

Mondragon Unibertsitatea, Sidenor, EMAG-Samputensilli, UNIBO, ECL-ENISE eta CRF erakundeetako ikerlariak aritu dira elkarlanean, eta lantaldeak etorkizunean osagaien azken errendimendua hobetu ahal izateko fabrikazio-prozesu alternatiboak identifikatu ditu. Gainera, osagaien portaera materialaren propietateen eta prozesuaren parametroen arabera balioesteko gai den Ikaskuntza Automatikoko sistema bat ere sortu da. Lortutako emaitzei buruzko balorazio positiboa egin da, eta etorkizunera begira industria-beharretatik hurbilen dagoen balidazioan lan egiteko asmoa dago, bai errendimendu handiko mekanizazio-laboregiaren antzeko espazioetan, bai enpresetan bertan.

Hezkuntza digitalaren erronkak eta aukerak

BILBAO AS FABRIKEN EGINDAKO EKITALDIAN PARTAIDE IZAN DIRA AMAIA ARROYO SAGASTA, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA, ETA CRISTINA SÁNCHEZ ROMERO, URRUTIKO HEZKUNTZARAKO UNIBERTSITATE NAZIONALEKO (UNEDEKO) IRAKASLE ETA IKERTZAILE ADITUA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Gero eta sakonago aztertzen da hezkuntzaren eta teknologia digitalaren arteko lotura. Askotan, lotura horren arriskuei eta ondorio kaltegarriari erreparatzen zaie, baina badaude alde batera utzi ezin diren aukerak ere. Hori guztia dela eta, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak *Hezkuntza digitala: aukera eta erronkak* jardunaldia egin zuen, maiatzaren 16an, Bilbao AS Fabrik campusean. Hausnarketa konstruktiboa egitea eta arreta digitalizazioak hezkuntzarentzat dakartzan aukeretan eta erronketan jartzea izan da xedea.

Errealitate berriei aurre eginez

Amaia Arroyo Sagastak, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak, eta Cristina Sánchez Romerok, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNEDeko) irakasle eta ikertzaile adituak, zuzendu zuten topaketa. Besteak beste, nabarmendu zuten teknologia digitalen arazo eta arriskueta zentratzeak diskurtso ilunak sortzera eramán gaitzakeela: "hobe da sareak eta teknologia erabiltzeko eredu onak eskaintzea, ikasle edo seme-alabek ikus dezaten zein aukera eskaintzen dituzten" argitu du Arroyok.

Cristina Sánchez Romerok CIBERPROXY izeneko proiektua aurkeztu du, bertan, eta Mondragon Unibertsitateko kolaborazioarekin, metabertsoaren bidez bullying-ari aurrea hartzea nahi da.



Jardunaldiak hausnarketa eraikitzailea egin nahi izan du eta fokua jarri du digitalizazioak hezkuntzari eskaintzen dizkion aukeretan.

Aquanariako III. Erronka

BLANCA LAHOZEN "LIRIOS DEL ATLÁNTICO" PROPOSAMENAK IRABAZI DU AQUANARIAKO III. ERRONKA.



Blanca Lahozek eskuratu zuen ikasketa-beka bat.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | 2023ko edizioa maiatzaren 12an egin zen, Donostian, eta 100 parte hartzaile baino gehiagoren artetik hautatutako lau finalistak bildu zituen, guztiak Basque Culinary Centerreko Gastronomía eta Sukaldaritza Arteen Gradu bigarren ikasturteko ikasleak, Basque Culinary Centerren egindako finalean. Bertan, finalistek 25 minutuko tarte izan zuten adituen epaimahai baten aurrean euren proposamen gastronomikoa azaltzeko.

Blanca Lahozek 4.750 €-ko ikasketa-beka jaso du. Gainerako finalistak izan ziren Jon Carazo "Barra de pintxos y su secuencia"-rekin, Pablo Cabrera "Recuerdos de Mazagón"-ekin eta Vega Strumbraite "Por el corriente frío" lanarekin

Aquanaria Erronka chef belaunaldi berriak akuikulturarekin eta eredu gastronomiko iraunkor batek dakartzan erronkekin harremanetan jartzeko modu inspiratzailea da.


Erronkei aurre eginez ikastea

Erronkak Basque Culinary Centerren hezkuntza ereduaren funtsezko zati bat dira; izan ere, ikasteko eta gaitasunak garatzeko aukera bikaina izateaz gain, ikasleei ahalmen handia erakusteko aukera ematen diete. Alde horretatik, Aquanaria Erronka partehartze arrakasta handiz garatzen ari da, 2021ean Aquanariak eta Basque Culinary Centerrek lankidetzan hitzarmena sinatu zutenetik. Aquanaria Erronka chef belaunaldi berriak akuikulturarekin eta eredu gastronomiko iraunkor batek dakartzan erronkekin harremanetan jartzeko modu inspiratzailea da.

Aquanaria enpresa aitzindaria da itsas akuikulturaren, eta ibilbide luzea egin du hainbat espezie landatzen.

Euskal kulturaren eragiteko master berria

ESKORIATZAKO CAMPUSEAN EGINDAKO BILKURAN, PARTE HARTU DUTE MASTERREKO KOORDINATZAILEAK ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ORDEZKARIEK: AITOR BENGOTXEA UEUKO ZUZENDARIAK ETA ANA URKIZA EUSKO IKASKUNTZAKO LEHENDAKARIAK.



Nagore Ipiña, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa; Eneko Bidegain masterreko koordinatzailea; Aitor Bengoetxea UEUKo zuzendaria; eta Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakaria.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Maiatzaren 24an aurkeztu zuten Eskoriatzako campusean, 2023ko urrian Mondragon Unibertsitateak abian jarriko duen Euskal Kulturaren Eragiletzan master berria. Bertan izan ziren Nagore Ipiña, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa; Eneko Bidegain Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle, ikertzaile eta masterreko koordinatzailea eta masterraren parte hartuko duten eta babestuko duten bi erakunde ordezkariek: Aitor Bengoetxea UEUKo zuzendaria eta Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakaria. Masterraren aurkezpen ekitaldia baliatu zuten, gainera, UEU eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateen arteko elkarlanerako hitzarmena sinatzeko eta Eusko Ikaskuntza eta Fakultatearen artean indarrean dagoen hitzarmena berresteko.

Ordezkaritza zabala

Nagore Ipiñak Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok UEU

eta Eusko Ikaskuntzaren babes eskertu eta hiruerakunde arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten.


Bere aldetik, Eneko Bidegainek azpimarratu zuen euskal kulturgintza eta eragiletzan sakontzeko dagoen premia. Bidegainen esanetan, "euskararen biziberritza ez dago hizkuntza konpetentzia linguistiko edo instrumental baten esku soilik, hizkuntza komunitate baten ardatza ere badelako, eta kultura delako ardatz horren euskarria".

Aitor Bengoetxeak, bestalde, gaineratu zuen euskal kultura izanik masterraren objektua bete-betean datorrela UEUren izaerarekin, erakundea hasieratik herri-gintzan eta euskalgintzan kokatu delako, eta azpimarratu du "master honek balio lezakeela euskal kultura hedatuko duen eragileak prestatzeko".

Aurkezpen ekitaldia Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren hitzekin amaitu zen, eta Eusko Ikaskuntzako hainbat modutan egingo diola ekarpena masterrari aipatu zuen: lurraldetasun ikuspegia eskainiz, Eusko Ikaskuntzan egiten diren askotariko proiektuen emaitzak eskura jarritz, zein kontrasterako baliatuz eta Master Bukaerako Lanak egiteko aukera eskainiz.

Hego Korearekin harremana estutzen

HEGO KOREA HERRIALDE ERREFERENTEA DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN NAZIOARTEKOTZA ESTRETAGIA ETA ERAGIKETETAN.



Vicente Atxak, Lander Belokik eta Aitor Lizartzak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Korean.

Enpresagintza Fakultatea | Hego Korea erreferentziatzeko herrialdea da Mondragon Unibertsitatearen nazioartekotze-jardueren barruan. Mondragon Team Academy sareko laborategi guztietako LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) Graduko 230 ikasle/ekintzailek Hego Korea egin dute ikasturte honetan ikaskuntza-bidaia. Ikasteko bidaia horretan, Asiako berrikuntza-ekosistema eta erreferentziatzeko enpresak ezagutu ahal izan dituzte, proiektu ekintzaileak gara-

tuz. Gainera, Mondragon Unibertsitateko campus guztietako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduko (myGADE DUAL) marketin digitalaren ibilbideko 30 ikasle ere herrialde horretan egin dute nazioarteko egonaldia. Bixente Atxa (Mondragon Unibertsitateko errektorea), Lander Beloki (Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanoa) eta Aitor Lizartza (Mondragon Team Academyko koordinatzailea) bertan zirela, Mondragon Unibertsitateak jarduera ezberdinak garatu ditu, besteak beste lankidetzaren hitzarmen bat sinatuz Sungkonghoe University-SKHUrekin, ikasleen elkartrukea areagotu eta jarduera akademikoak elkarrekin garatzeko.

Partaidetza aktiboa testuinguruan

Sinatutako akordioaren artean, nabarmentzekoa da Jeju Development Center, Happy Bridge Management Institute eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaren berria, elkarrekin Jeju uhartean ekintzailatza eta berrikuntza bultzatzeko bideratua.

Hirugarren akordioa Byulmuri Social Cooperative-rekin sinatu da, ikastetxe berritzaileak biltzen dituen erreferentziatzeko sare batekin.

Sinatutako akordioez gain, Mondragon Unibertsitateak Jeju Forum for Peace and Prosperity-n parte hartu du bi txosten aurkeztuz: lehena, MONDRAGONen eredu kooperatiboari eta horrek lurralde-garapenean duen eraginari buruzkoa, eta bigarrena, Mondragon Team Academyren hezkuntza-proiektuari eta haren nazioarteko ekintzailatza-ekosistemari buruzkoa.

Bizimodu praktikoa diseinatzuz

GOI ESKOLA PPOLITEKNIKOKO IKERLARI TALDE BAT ERMUAKO SANTA ANA AUZOA BERRITUKO DUEN EUROPAKO PROIEKTUAN PARTE HARTZEN ARI DA.



Proiektua herritarrekin elkarlanean garatu da.

Goi Eskola Politeknikoa | Diseinu Berrikuntza Zentroko ikertzaileek parte hartzen duten drOp europar proiektuaren helburu berria Ermuako Santa Ana auzoa berritzea da, birgaitzearen ardatza ingurune lagunkoiak eta digitalak sortzea izanik, berrikuntza soziala bultzatzeko eta adinekoen auzoko bizi baldintzak hobetzeko helburuekin. Ekimena Pertsonengan Oinarritutako Diseinua korrontearen baitan kokatzen da, eta diziplina honen helburu nagusia pertsonen premiak ardatz hartu eta berrikuntza aplikatuz erabiltzaileen ongizatea bermatu ahal izatea da, horretarako ekimenen egingarritasun teknologikoa eta bideragarritasun ekonomikoaren arteko oreka lortuz.

Biztanleen egunerokoan eragin

Ermuako Santa Ana auzoaren kasu konkretuan berrikuntza integralerako metodologia bat garatu da maila estrategikoan, auzoa irisgarriago eta adineko jendearikiko lagunkoiagoa bilakatzeko. Helburuak bete ahal izateko, bertako biztanleekin arlo ezberdinak lantzeko tailerra antolatu zen, ikuspegi sozial, ekonomiko, digital edo jasangarritik identifikatzen zituzten oztopo edo arazoak ezagutu eta horien eragin ahal izateko.

Proiektu hau aurrera eramateko Tecnalia eta Ermuako Udalarekin elkarlanetan ari da Goi Eskola Politeknikoko lantaldea, Italia eta Estoniako partnerrekin antzeko hirien azterketak egiteaz gain.

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduari buruzko podcast-a

BOST ATALETAN JORRATU DITUZTE IKASLEEK GRADU BARRUKO ZEIN KANPOKO KONTUAK, HAUETAN ETORKIZUNARI BURUZKO GOGOETAK EGINEZ.



Podcastaren grabazio saio bat.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako Jone Markuleta, Julen Iglesias, Lara Garcia, Irati Alvarez eta Leire Llano ikasleek graduari buruzko podcast sorta bat grabatu dute Aretxabaletako campusean. 4. mailako ikasleek modu informalean jorratu dituzte era askotako gaiak: graduaren antolaketa, bizitza unibertsitarioa, etorkizunari buruzko gogoetak...

Campusaren egunerokoa deskribatuz

Podcastak Aretxabaletako campuseko platoan grabatu dituzte eta, gaiaren arabera, gonbidatuak ere izan dituzte grabazioetan. Esaterako, ikasleen bizitzari buruz hitz egiteko graduako 3. mailako Ane Urresti eta Iker Mateo ikasleen testigantzak jaso dituzte. Ikasleek behin gradua bukatu eta gero duten bizitzari buruz berba egiteko, aldiz, Idoia Lahidalga ikasle ohia

Podcast-ak Aretxabaletako campuseko platoan grabatu dituzte

elkarrizketatu dute; azkenik, etorkizun profesionalari buruz hitz egiteko Ane Zuazubizkar kazetari eta ikasle ohiarekin bildu dira.

Podcastak bost atal ditu, eta hauetariko bakoitzak ikasleek ikus-entzunezkoaren egunerokoa bizi ohi dituzten egoerak kontatzen dira.

Hauetara podcastaren bost atalak.

- 1go atala: Graduaren oinarriak.
- 2. atala: Ikasle bizitza.
- 3. atala: Ikasle bizitza unibertsitatetik kanpo.
- 4. atala: Irakasleak, kredituak eta azpiegiturak.
- 5. atala: Etorkizuna.

‘Erantzi’ ekitaldi soziala Bilbon

ILUNION HOTELEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAREKIN GAZTEEN ARTEKO HARREMAN AFEKTIBO-SEXUAL OSASUNTSUAK SUSTATU NAHI DITZUTE.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Humanitate Digital Globalak (HDG) graduako 2. mailako ikasleek ekitaldi soziala antolatu zuten, ekainaren 8an, Bilbon. Ilunion hotelean egindako ekitaldiarekin gazteen artean harreman afektibo-sexual osasuntsuak sustatu nahi izan zituzten. Ekitaldian hurrengo artista eta hizlariak parte hartu zuten: Josu Cardoso, Unai Rivera, Irati Erauskin, Aida de la Calle eta Idoia Madarieta.

Aurreiritzirik gabe

Erantzi ekitaldian, gazteen arteko harreman afektibo-sexualen gainean dauden aurreiritziak aztertu eta

landu zituzten; beste batzuen artean, biolentzia sexuala, zaintza eta tabuen gaiak, betiere, modu dinamiko eta erakargarri batean. Mahai-inguruak, bakarrizketak eta zenbait dinamika ezberdin baliatu zituzten ekitaldian, gazteen esperientziak eta profesionalen ikuspuntuak ere jasoz.

Hau da Humanitate Digital Globalen graduako 2. mailako ikasleek era honetako ekitaldi soziala antolatzen duten bigarren aldia. Iazko ikasturtean, eta graduako Ekitaldi sozialen antolaketa eta kudeaketa moduluaren barruan, osasun eta gaixotasun mentalen inguruan sentsibilizatzeko *Taburu* jardunaldia antolatu zuten.



Ekitaldian zehar eztabaida irekia sustatu zen.

Alumni topaketa LABen

14 NAZIONALITATETAKO 200 ALUMNI-K BAINO GEHIAGOK PARTE HARTU ZUTEN BASQUE CULINARY CENTERREKO ALUMNI TOPAKETAN, SEKTOREAN LOTURAK INDARTZEKO HELBURUAREKIN

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerreko ikasleak LABen bildu ziren, Tabakaleran, gastronomiari zein horren garapen profesionalari buruzko ikuspegiak eta hausnarketak partekatzen.

Basque Culinary Centerreko alumnak sukaldaritzaz harago jarduera profesionala garatzen duten profesionalak dira; ikerketa, irakaskuntza, gerentzia, komunikazioa, eragina eta abegikortasuna haien ibilbide profesionalean lantzen dituzten eremuetako batzuk dira.

Guztira, 14 nazionalitatetatik etorritako 200 alumni-k baino gehiagok hartu zuten parte topaketan. Ikasketak amaitu dituztenen %40k goi mailako postuak lortzen dituzte, hala nola, sukaldaritzako edo aretoko buruak, kudeatzaileak, negozio arduradunak eta beste. Zentzu horretan, nabarmendu behar da Gipuzkoan lan egiten duten ikasleen %20 baino gehiago ekintzaileak direla, eta beren negozioa sortzearen eta garatzearen aldeko apustua egin duten pertsonak direla, Gipuzkoako lurraldean gastronomía garatzen lagunduz.

Ekitaldi parte hartzailea

Ikasketak amaitu zituztenek haien



Ikasleen arteko topaketak arrakasta handia izan du.

esperientzietan oinarritutako hausnarketa eta inspirazio gune bat partekatu zuten, non Gipuzkoako gastronomiaren oraina eta etorkizuna, eguneroko bizitzan dituzten erronkak eta gastronomiari begirada anitza izan ziren gai nagusiak.

Lau izan ziren jardunaldi-rako hitzartutako mahainguruak: "Emprender en Gastronomía y sus retos" Sebastián Pinchera, Luisa Rubio eta Valerie Mazaren eskutik eta AMA Tolosa jatetxe-kudeatzaile eta jabeetako bat den Javier Riverok moderatuta. "La Gastronomía más allá de la cocina", LACRÉMEko zuzendari Nagore Garciak moderatuta, non parte hartu zuten Isabel Posadak eta Cristina eta Laura Tejedak. Eta hirugarrena "Innovando desde la gestión" izan zen, Ainhoa Berasategi Albisu, Chesko Salas eta Miguel Montoriorekin, Alvaro Oviedok moderatuta.

Azkenik, "Liderando una nueva manera de entender la cocina" izan zen azken mahaingurua non Nut Garcia, Javier Álvarez eta Andoni Arranz-ek parte hartu zuten, eta Mugaritzeko Ikerketa eta Prestakuntza Arloko gerente Julián Oterok moderatu zuen.

Alumni

"Graduak gaztetatik lan munduan barneratzea ahalbidetu dit"

myGADE GRADUA IKASI ETA HAINBAT ESPERIENTZIA PROFESIONAL BIZI ONDOREN, GAUR EGUN JONE SAN SALVADOR DUBAIN ARI DA LANEAN. FAGOR PROFESSIONAL KOOPERATIBAREN ASIA ETA AFRIKARAKO MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ARLOAN DIHARDU.



Jone San Salvador, Dubain.

Facultad de Empresariales | Nola erabaki zenuen myGADE ikastea? Beti izan nuen nahiko argi enpresa arloari buruz ikasi nahi nuela, eta unibertsitatean aplikatzen den metodologia ikusi ondoren, jakin nuen Mondragon Unibertsitatean egin nahi nuela. myGADE eta LEINN ziren nire aukerak, eta erabakia hartzen lagundu ninduen, ibilbide dualean gradua esperientzia profesionalarekin uztartzea izan zen.

Zer nabarmenduko zenuke gradutik? Unibertsitateko garai oso polita gogoratzen dut, lan asko egin behar izan arren asko disfrutatu nuen. Formakuntza duala egin nuen Eroskiko sail komertzialean, eta bertan babes handia sentitu nuen. Horrez gain, nabarmenduko nukeen beste zerbait Mexikon izandako nazioarteko esperientzia da, bertan gai berri eta erakunde kudeaketari buruz asko ikasteko aukera izan nuelako.

Nolakoa da zure egunerokoa gaur egun? Nazioartekotze alorrean unibertsitateko espezialistaren graduondokoa egin nuen, eta hau amaitzerakoan Dubaira etorri nintzen Fagor Professionalekin, emirerretik Asiako eta Afrikako marketin eta komunikazio alorrean jarduteko.

Orain, gehienbat erakustaldi eta ekitaldietan marka sustatzeaz arduratzen naiz, India, Australia edo Singapur bezalako herrialdeetara bidaiatuz. Ekintza horien bidez, aurkezpen korporatiboak eta produktu-aurkezpenak eginez, banatzaileengana eta azken bezeroengana hurbiltzeko, eta markari merkatuan merezi duen lekua emateko. Showroom-en diseinua, sare sozialen kudeaketa edo aldizkarietan promozioak lantzea dira egunerokotasunean dauden beste gai batzuk.

Nola lagundu dizu graduak zure ibilbide profesionalean? Hain gaztetatik lan-munduan sartzeak erosotasun-eremutik ateratzen zaitu erabat, eta, gaur egun dudana esperientziaz, uste dut horrek laguntzen dizula gehien bat profesional eta pertsona gisa hazten.

Zer esango zenioke gaur egun myGADE ikasten hasi berri den norbaiti? Unibertsitatea ez da etapa erraza ezta ibilbide ideala, eta momentu askotan %300a eman behar den errealitate bat da, baina prozesu horretatik igarotzeak merezi du, bertatik ateratako bizi-pen eta ikasketak oso aberasgarriak baitira.

Mendi lasterketen loraldia

MENDIKO LASTERKETEN GORAKADA NABARIA IZAN DA AZKEN URTEOTAN. DIZIPLINA HONEK RUNNING TRADIZIONALA ETA INGURUNE NATURAL ETA MENDITSUA UZTARTZEN DITU, ETA HORREK BEREZIKI ERAKARGARRI EGITEN DU AIRE ZABALEKO KIROLA ETA ABENTURA MAITE DUTENENTZAT.



Mendi lastekertak geroz eta ohikoagoak dira.

Kirola | Hainbat faktorek lagundu dute mendiko lasterketen hazkundera. Lehenik eta behin, gero eta kontzientzia handiagoa dago jarduera fisikoaren onura eta ongizatearen garrantziaren inguruan. Bestetik, jendeak, ariketa modu desafiataile eta atseginagoan egitea bilatzen du eta mendi lasterketek hori eskaintzen dute. Gainera, mendi lasterketek erronka paregabea eskaintzen digute; korrikalariak bidezidor desberdinei, bide tekniko eta harritsuak, hala nola, igoera malkartsuei eta jaitsiera teknikoak egin behar diete aurre. Horretarako, trebetasun fisiko eta teknikoak behar dira, oztopoak gainditu eta mendietako gailurretara iristeko, eta horrek kirol honekiko interesa areagotzea ekarri du.

Sare sozialen eta plataforma digitalen hedapenak ere eragin nabarmena izan du mendiko lasterketen zabalkundera. Korrikalariak beren esperientziak, argazkiak eta lorpenak partekatzen dituzte, eta horrek beste batzuk komunitatearekin bat egitera bultzatzen ditu. Gainera, sare sozialek gaitasunen ikusgarritasun handiagoa ahalbidetzen dute eta ekitaldi, ibilbide eta aholku praktikoei buruzko informazioa zabaltzea errazten dute.

Komunitate aktiboa unibertsitatean

Mendiko lasterketen egutegia nabarmen hazi da mundu osoan. Distantzia eta zailtasun maila desberdinetako lehiaketak daude, mendiko lasterketa laburretatik, ultramaratoietaraino. Ekitaldi horiek korrikalari profesionalak zein zaleak erakartzen dituzte, eta horrek trail running-aren komunitatearen aniztasunari eta hedapenari laguntzen dio.

Mondragon Unibertsitatean ere badaude mendi lasterketen munduan ari diren hainbat pertsona ezberdin (ikasle, ikasle-ohi edota langile); hala nola, maila ezberdinetako mendi korrikalariak, lasterketa antolatzaileak zein mendi lasterketen bideo egile edo filmmaker-ak. Hori guztia ikusita, eta Mondragon Unibertsitatearen 25. urteurreneko ospakizunekin bat eginez, Kirol Zerbitzuak solasaldi berezi bat antolatu du, unibertsitateko korrikalari ezberdinak ezagutu eta beraien esperientziei buruz solasteko. Hauek izan dira gonbidatuak: Malen Osa, Aritz Egea, Garazi Artola, Ganix Lasa eta Julen Elorza, Xabi Igoa gure lankideak moderatzaile lanak eginez.

Judith Zubia ikasleak CAF-Elhuyar saria irabazi du

TEKNOLOGIA BIOMEDIKOEN MASTERREKO IKASLEAK CAF-ELHUYAR SARIETAKO DIBULGAZIOKO ARTIKULU ONENAREN ERREKONAZIMENDUA JASO DU



Judith Zubia sariarekin.

Goi Eskola Politeknikoa | Judith Zubiaren "Garena egiten gaituena, egiten duguna idazteko" artikuluak dibulgazio artikulu onenaren saria lortu du CAF-Elhuyar lehiaketaren 2023ko edizioan. Dibulgazio artikulu honek biltegitratze digitalaren gaia jorratzen du, arazoa eta konponbide posible bat azalduz. Zientzia,

teknologia, arte eta kazetaritza arloetako adituek osatzen duten epaimahaiak landutako gaiaren gaurkotasuna nabarmendu du, baita modu argi eta ulergarrian azaldu izana ere, egileak berak egindako irudien laguntzarekin gainera.

Zubia Teknologia Biomedikoen Unibertsitate Masterreko ikaslea da eta Gainazalen Teknologien ikerketa taldearekin ere kolaboratzen du, unibertsitateko dual programaren baitan. CAF-Elhuyar sarietan jasotako aitortzagatik 2000€, eskultura bat eta Elhuyar aldizkariaren urte baterako harpidetza irabazi ditu.

Euskarazko dibulgazio sustatuz

Elhuyarrek CAF-Elhuyar sariak antolatzen ditu CAF enpresarekin elkar-lanean eta NEIKERen babesarekin. Lehiaketaren helburua da zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa, kazetaritza eta gizarteratzea bultzatzea, saritzea eta aitortzea.

Zorionak Judith eta segi horrela lanean!

Arizmendiarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

"Heldutasunaren ezaugarria da eginkizun kolektiboan parte hartzea eta integratzea".

(Gogoetak liburuxka. 289 o.)

Iraila

Goi Eskola Politeknikoa:

- ▶ **MÁSTER PROFESIONAL EN FABRICACIÓN ADITIVA INDUSTRIAL**
Ordizia, Septiembre
- ▶ **MÁSTER PROFESIONAL EN SOLDADURA (IWE/IWT), ROBÓTICA E INSPECCIÓN DIGITAL**
Ordizia, Septiembre

Urria

Goi Eskola Politeknikoa:

- ▶ **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN EMPRENDIMIENTO TECNOLÓGICO PARA LA SILVER ECONOMY**
Urduliz, Octubre
- ▶ **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN INTELIGENCIA ARTIFICIAL PARA PROFESIONALES DEL SECTOR SALUD Y SILVER ECONOMY**
Urduliz, Octubre
- ▶ **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE ONLINE EN CIBERSEGURIDAD**
Campus Virtual, Octubre
- ▶ **MÁSTER EXECUTIVE EN LOGÍSTICA INTEGRAL Y COMPRAS**
Bilbao, Octubre
- ▶ **MÁSTER INTERUNIVERSITARIO DE FORMACIÓN PERMANENTE EN TECNOLOGÍAS DE HIDRÓGENO**
Bilbao-Barcelona-Tarragona-Zaragoza, Octubre
- ▶ **MÁSTER PROFESIONAL EN FABRICACIÓN ADITIVA INDUSTRIAL**
Ordizia, Septiembre
- ▶ **MÁSTER PROFESIONAL EN SOLDADURA (IWE/IWT), ROBÓTICA E INSPECCIÓN DIGITAL**
Ordizia, Septiembre
- ▶ **DIPLOMA DE EXPERTO EN GESTIÓN DE PROYECTOS**
Hernani (Galarreta), Octubre
- ▶ **DIPLOMA DE EXPERTO EN PROGRAMAS DE MEJORA CONTINUA LEAN-SIX SIGMA BLACK BELT**
Arrasate-Mondragón, Octubre
- ▶ **CURSO DE ESPECIALIZACIÓN ONLINE EN GESTIÓN DE PROYECTOS**
Campus Virtual, Octubre

MBA EXECUTIVE:

- ▶ **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE ONLINE EN BUSINESS ANALYTICS:**
Enero 2024
- ▶ **DIPLOMA EXPERTO EN PERSONAS, CULTURA Y TALENTO PARA EL FUTURO DEL TRABAJO:**
Enero 2024
- ▶ **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN COACHING**
Febrero 2024
- ▶ **DIPLOMA DE ESPECIALIZACIÓN EN LIDERAZGO**
Febrero 2024
- ▶ **DIPLOMA EXPERTO EN LIDERAZGO Y TRABAJO EN EQUIPO**
Febrero 2024

GRADOS

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/graduak

MÁSTERES UNIVERSITARIOS

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

FORMACION PARA PROFESIONALES

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

OTROS

Ibili munduan 0 komisio ordainduta*.



EZ du komisiorik Estatu osoko
10.000tik gora kutxazainetan*.

EZ du komisiorik LABORAL Kutxaren
aldetik atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik
dibisa aldatzeagatik.

*Zure probintzian dirua ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide. **LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 18 eta 29 urte bitartekoa (biak barne), eta Bizum aktibatuta eduki behar duzu entitatearekin.



LABORAL
kutxa